

## **BERDINTASUNERAKO SENTSIBILIZAZIO- ETA TREBAKUNTZA-EKIMENAK**

---

HELBURUAK: Laboral Kutxako langileak berdintasun-gaietan sentsibilizatzea eta trebatzea, ekimen jakinen bidez.

ENTITATE ARDURADUNA: NURIA AGIRRE UNZUETA

BESTE ENTITATE KOLABORATZAILEAK: ELHUYAR

HASIERA DATA: 2016ko iraila

HARREMANETARAKO PERTSONA: Arrate

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 943719674

HARREMANETARAKO POSTA ELEKTRONIKOA: arrate.arcauz@laboralkutxa.com

DESKRIBAPENA:

### 1. "DETAILE TXIKIZ BETETA DAGO BERDINTASUNA" ESKETXAK

- **Laburpena:** lankideen sentsibilizazioa lantzeko esketxak
- **Jardueraren deskribapena:** lankideak berdintasunaren inguruan sentsibilizatzeko bideo edo esketxak sortu ditugu. Bideo horietan, berdintasunaren gaiarekin lotura duten hainbat egoera identifikatu ditugu; gure eguneroko lanean, bezeroekin nahiz lankideon artean, bizi ditugun egoerak, alegia. Hainbat lankidek bidalitako ideiak oinarri hartuta eta boluntario moduan aritu diren beste zenbait lankideri esker, proiektua aurrera atera dugu.



- **Emaitzak:**
  - Langileek berdintasunarekiko duten jarrera (langileei egiten zaien inkestaren bidez).

- Bezeroek berdintasunarekiko duten gogobetetzea (bezeroen gogobetetze inkestaren bidez neurtzen da)
- Sketxek izan dituzten bisita kopurua eta iruzkin kopurua
- **Berrikuntzak:** Esketxak sortzeko, lankideek eurek proposatutako ideiak jaso ditugu (berdintasun eta berdintasun eza islatzen duten eguneroko egoerak) eta lankideak aritu dira aktore-lanetan. Horri esker, oihartzun handiagoa izan dute erakundean.
- **Arrakasta faktoreak:**
  - Lankideen inplikazioa:
    - Laboral Kutxako lankideek proposatutako ideiak erabiltzea (eurei gertatu izan zaizkien edo gertatzen zaizkien egoerak islatzea)
    - Aktore-lanak egitea.
  - Berdintasun Batzordearen ekarpena
  - Elhuyar Aholkularitzaren laguntza

## 2. "BERDINTASUNERAKO PILULAK"

- **Laburpena:** Laboral Kutxak Komunikazio barneratzailea erabiltzeko gida sortu zuen eta erakundean ezagutzera eman zuen. Hala ere, azken inkestaren bidez, ikusi genuen lankideek ez zutela ezagutzen eta erabiltzen. Horregatik, gidaren edukiak zabaltzeko modu atsegina eta didaktikoagoa bilatu dugu.
- **Jardueraren deskribapena:** 12 pilula sortuko ditugu. Hilean pilula bat argitaratzen dugu Giltzaneten. Diapostiba bakoitzean, Komunikazio barneratzailearen gidan agertzen diren edukiak laburbiltzen ditugu. Piluletan 3 eduki-mota lantzen ari gara: gaztelaniaren erabilera ez-sexista, euskararen erabilera ez-sexista eta berdintasunean oinarritutako irudien erabilera.
- **Emaitzak:**
  - Langileek komunikazio barneratzailearen inguruko edukiak ezagutzen dituzte: autopertzepzioa (inkestaren bidez)
  - Komunikazio barneratzailearen erabilera Laboral Kutxak erabiltzen dituen euskarrietan: webgunea/ publizitate-euskarriak/ barne- eta kanpo komunikazioak/sare sozialak (Bi urterik behin komunikazioaren inguruko azterlana burutzen da).
  - Pilulekin sortutako eztabaida kopurua eta eztabaiden edukia
  - Bezeroek berdintasunarekiko duten gogobetetzea (bezeroen gogobetetze inkestaren bidez neurtzen da)

## COMUNICACIÓN INCLUSIVA

### 4ª Píldora para la igualdad



#### Evitar el uso de barras y guiones siempre que sea posible

Sólo recomendable en impresos, formularios, contratos, y documentos oficiales si carecemos de espacio suficiente para aplicar otras formas. Su uso entorpece el lenguaje.

EVITAR	USAR
Los/as trabajadores/as	Los trabajadores y las trabajadoras
Los/as socios/as	Las socias y los socios



#### Evitar el uso de la @

La @ no es un signo lingüístico.

Soluciona aparentemente el problema en el lenguaje escrito, pero no en el oral.

EVITAR	USAR
L@s emplead@s	El personal / La plantilla
L@s concejales	La Corporación Municipal



- **Berrikuntzak:** Komunikazio barneratzailearen gida ezagutzera emateko modu berria.
- **Arrakasta faktoreak:**
  - Pilula argiak eta laburrak izatea
  - Lankide guztiengana iristea Giltzaneten (LK-ren intranet-a) bidez: hasierako pantailan agertzen dira.
  - Lankideei pilulen inguruko iruzkinak egiteko aukera eskaintzea
  - Elhuyar Aholkularitzaren laguntza

#### TRANSFERITUA IZATEKO GAITASUNA:

Edozein erakundetan sor daitezke horrelako esketxak. Izan ere, eguneroko lanean berdintasuna edo berdintasun eza adierazten duten egoerak gertatzen dira. Batzuetan, zaila da egoera horiek modu konzientean identifikatzea eta sortu ditugun sketxak horretarako oso baliagarriak izan dira.

Berdintasunerako pilulak komunikazio barneratzailearen gaia jorratu nahi duen edozein erakunderentzako baliagarriak izan daitezke.

#### INSTITUZIONALIZAZIOA:

Laboral Kutxako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana erakundearen strategiaren parte da. Plan Estrategikoan zein urteko kudeketa-planetan txertatua dago. Hainbat egitura sortu dira Plana aurrera eramateko:

Planaren arduraduna, koordinatzailea, Berdintasun Batzordea, gaikako lantaldeak... Horrez gain, Laboral Kutxak Elhuyar Aholkularitzaren laguntza jasotzen du Plana garatzeko. Baliabide pertsonalak zein ekonomikoak ezartzen dira urtero Plana aurrera eraman ahal izateko. 2011az geroztik, lan handia egiten ari da erakundea, berdintasunerako politikak bultzatzeko.

**BALIABIDEAK** (pertsonak eta baliabide ekonomiko eta materialak):

- Aktoreak: 13 lankide
- Komunikazio-enpresa
- Berdintasun Batzordearen laguntza
- Elhuyar Aholkularitzaren laguntza